eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEA

FACULTAD DE MEDICINA Y ENFERMERÍA



# FARMAKOLOGIA. MEDIKAMENDUEN GARAPENA, BALIOSPENA ETA ERABILERA ARRAZIONALA MASTERRA

www.ehu.eus

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Medikamenduek, osasunean zein gizartean onura aipagarriak izateaz gain, eragin nabarmena dute ekonomiaren esparruan. Sendagaien diseinua, garapena, ebaluazioa eta erabilera estuki lotuta daude I+G+B kontzeptuari, zientzia- eta industria-jardueran. Farmakologia. Medikamenduen Garapena, Baliospena eta Erabilera Arrazionala Unibertsitate Masterrak eskarmentudun profesionalak trebatzea du xede; hain zuzen ere, beraien jarduera enpresa farmazeutiko eta bioteknologikoetan, ikerketa zentro publikoetan, osasun laguntzan, akademian eta administrazio publikoan gara dezaten.

Masterraren helburu nagusia ikasleei pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko modu bat ematea da, gizarteak Teknologia Farmazeutikoa, Farmakologia eta Terapeutikaren alorretako ezagutza zientifikoari eskatzen dizkion beharrizanei erantzuteko gai izan daitezen.

## SARBIDEA

Gradu edo Diplomatura Erizaintzan, Fisioterapian.
Gradua edo Lizentzia Biologia, Biokimika, Bioteknologia, Farmazia, Medikuntza, Odontologia, Kimika edo Albaitaritzan
Batzorde Akademikoak baimenduko sarbidea beste titulu batzuetatik edo parekoetatik.
Merituen balorazioa: ikasketa espedienteko nota (%40); ikerketa arloko eskarmentua, argitalpenak, informatika ezagutza (%30); ingelesa, literatura zientifikoaren irakurketa (%20); aurrez aurreko elkarrizketa (%10).

## IRTEERA PROFESIONALAK

Medikamenduen garapena, balioespena eta erabilera arrazionalarekin lotura duten lanbideak, erakunde eta organizazio publiko zein pribatuetan.

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

| | |
|---|---|
| **Eskolak emateko lekua:** | Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa).<br>Farmazia Fakultatea (Vitoria-Gasteiz). |
| **Irakaskuntza mota:** | Eskolan bertakoa. |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania. |
| **Gutxi gorabeherako prezioa:** | 2.200-2.400 euro. |
| **Egutegia:** | Urritik ekainera, arratsaldez. |

## IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

| Nahitaezko Gaiak | Hautazko Gaiak | Proiektuak / Ikerketa-lanak | Guztira |
|---|---|---|---|
| 7,5 ECTS kreditu | 37,5 ECTS kreditu | 15 ECTS kreditu | 60 ECTS kreditu |

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

### Nahitaezkoak:

- Diana farmakologikoak.
- Farmakozinetika klinikoa eta farmakoen monitorizazioa.
- Master amaierako lana.

### Hautazkoak:

- Farmakologian prestatzeko jarduerak: ikastaroak, kongresuak, mintegiak eta bestelako jarduerak.
- Farmakoen garapenean aplikaturiko azterketa farmakozinetikoak / farmakodinamikoak.
- Zientzi prestakuntzaren oinarri eta praktika.
- Medikamenduen industri garapena.
- Saiakuntza klinikoa.
- Medikamenduen balioespena eta erabilera arrazionala nabaritasunean oinarritutako terapeutikaren diseinua.
- Farmakodinamia:ondore farmakologikoaren kuantifikazioa.
- Epidemiologia eta bioestatistika terapeutikaren zerbitzuan.
- Farmakoen erabilera kronikoak induzitutako eraldaketa zelularrak: inplikazio terapeutikoak eta toxikologikoak.
- Neuropsikofarmakologia.
- Farmakologiaren laborategirako teknikak, ereduak eta metodoak.
- Farmakoen erabilera ez terapeutikoa: droga-mendekotasuna eta doping-a.

## HARREMANETARAKO

**Arduraduna:**
Teresa Morera Herreras
**Tel:** 946015891
**Posta elektronikoa:**
teresa.morera@ehu.eus



**www.ehu.eus/eu/web/
master/farmakologia-masterra**